



## ERROTULUAK EUSKARAZ JERTZEKO 2017KO DIRU-LAGUNTZA

### PORTUGALETEKO EUSKARA SAILA

#### Xedea:

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen establezimenduetako **errotuluak euskaraz jartzeko** diru-laguntza bideratzea.

#### Onuradunak:

Portugaleten kokatuta dauden **merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen** establezimenduak, **errotuloak 2016an eta 2017an** instalatu badute eta aurrekoetan diru laguntza hauen onuradunak izan ez badira.

Diru-laguntza hauen **aplikazio eremutik kanpo** daude helburua Euskara normalizatzea duten entitateak, herri entitateak, banketxe eta aurrezki kutxak eta 300 m<sup>2</sup>-tik gorako eremua duten establezimenduak.

#### Proiektuak:

Errotulua diogunean haxe hartzen dugu kontuan: batetik, lokalaren kanpoaldean jarritakoa eta, halaber, toldoetan eta ibilgailu komertzialetan jarritako; eta bestetik, eraikinen bebarruetako direktorioetan kokatutakoak, jardueraren solairua eta ate zenbakia adierazten dituztela.

#### Errotuluaren testuari dagokionez

- Testuak zuzen idatzita egon behar du.** Honetaz Udalaren Euskara Zerbitzuak aholkua eskainiko die hala eskatzen dutenei.
- Establezimenduaren jarduerak (taberna, okindegia, arropa denda,...) derrigor agertu behar du errotuluan;** adibidez "Peio arrandegia", "Anatxu taberna". Ez dira diruz lagunduko izen propioak, toponimoak edota abizenak, soilik agertzen dituzten errotuluak.

#### Diru-laguntzaren zenbatekoa:

Errotulua euskaraz solilik idatziz gero, **gastuaren %75eko dirulaguntza** emango da, betiere **600 euroko mugapean**.

Errotulua, berriz, bi hizkuntza ofizialetan idatziz gero, **gastuaren %60ko dirulaguntza** emango da, betiere **400 euroko mugapean**.

#### Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Diru-laguntza **eskabidea behar bezala beteta**.
- Erakunde eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren **NANren fotocopia**.
- Egindako gastuaren **jatorrizko faktura**, 2015ekoa edo 2016koa, edo horren fotokopia konpultsatua.
- Errotulua jarrita dagoela frogatzen duen **argazkia**; errotulu bat baino gehiago denean, argazki bana aurkeztu behar da.
- "**Datuen alta edo aldaketa**" izeneko dokumentua.

#### Eskatzeko, ebazteko eta jakinarazteko epeak:

**2017ko urriaren 28ra arte** edo aurrekontu erabilgarria agortu arte.

#### Portugaleteko Merkataritzako Bulego Teknikoa

Portugaleteko Udala  
Merkataritza Saila  
Gizarte-etxea, 4. solairua  
48920 Portugalete - Bizkaia

Tel. 94 472 93 53 / Fax 94 472 92 94  
[comercio@portugalete.org](mailto:comercio@portugalete.org)  
Jendaurreko ordutegia: 8:00etatik 14:00etara